

#### BRODATZEN ARI NINTZEN

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk aire bat entzun nuen itxasoko aldetik itxasoko aldetik, untzian kantaturik.

Jaun kapitaina amaik igortzen nau zugana jin zaiten afaitera, hantset deskantsatzera hantxe deskantsatzera salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta, zu sar zaitz untziera gurekin fainera, hantxe deskantsatzera hantxe deskantsatzera salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta igaiten da untziera han emaiten diote lo bellarra papora eta untzi handian lo dago gaixo haurra.

Jaun kapitaina nora ekarri nauzu huna? zalu itzul neazazu hartu nauzun lekura hartu nauzun lekura, aita amen gortera.

Andre gazte xarmanta hori ezin gina hiru chun lekutan joanak gira aintzina ene meneko zira horai duzu oreña.

Andre gazte xarmatak hor hartzen du ezpata bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera aldez aren arima begaldakia zerura.

Hiru chun lekutan dago itxas leihorra oi ama anderea so egizu leihora zure alaba gaixoa huinak derabila.

#### URZO APHAL BAT

Urzo aphalt bat badugu herrian trixerik nigarez ari duzu kaloian barnetik bere lagun maitiaz boit izan utzirik kontsola ezazie ziek adiskidirik.

Oi ene izatia dolorez beterik mundian ez ahal da ni bezain trixerik ni bezala maitiak traditu diunik abil amodioa urrun ene ganik.

Tumba bat nahi dit lorpiari ezarri ene gorputa trixia gende munduari ene izer begiekin egizu dezan irri haieki zira zu ere hain sari.

#### LOA LOA

Loa loa txuntxurrun berde loa loa masusta aita guria Gasteizen da ama mandoon hartu ta

Loa loa txuntxurrun berde loa loa masusta aita guria abiatu da Vitoriako ferira:

Loa loa txuntxurrun berde loa loa masusta aita guriak diru asko du ama bidean saldu ta.

#### GOIZEKO EURI ARTEAN

Goizeko euri artean atekiñarik gabe eskuak sakelean pena bat bihotzean etxetik urruti nago kaletan bakarrik goizeko euri artean kitarra bakarrekiri.

Lan bat hartu behar dut gaur zerbaiz bazkaltzeko inork ez nau hartu nahi arrotza naizelako kaletan abestu dut nere herriko kantak jendeak zerbaiz utzi du goizeko euri artean.

Ez horrela ibilli neskatsak esaten dit bobeki hgenen bizi biok ekarrekiri batzuetan galdetzen diot nere buruari zertarako naizen hemen zergatik ari naizen betiro kezkatzen.

Bainan aurerra joan behar dut bides hartu arte bakarrik izan behar dut hori irixi arte eta egun on batean pozik ikusiko dut iguzkia agertzen goizeko euri artean.

#### URA IXURIRIK

Ura ixuririk sorgienen bidean dohaina bildu dut Bazo arratsean gauz Mayi nuzu, egunaz oreña etseko zakurrek xerkatzen nuten.

Jakes nun tuk horak ez tiat senditzen oihanpean kurri, horeina xerkatzen Jakes dait zakurrak, salbazak arreba ama nola sinets Mayi daitekela.

Jakes zakurrei hasi da xistuka horeina hil dute kolpez hausikika Jakesek kanitaz eman du pusketan asko ahal da Mayi gurekiran.

Afal, afal Jakes ni nuk hor lehena ene haragiaz beterik dupina Ama sala zolan nigarra begian puñala sartu du bere bihotzean.

#### ARROSA XURIAREN AZPIAN

Arrosa xuriaren azpian anderea lo harturik elurra bezain xuri ekhia bezain ederrik hirur kapitainek zeraukaten gortez inguratirik

Kapitainek joan ziren beren zaldiak harturik hartu zuten anderea mantoz huntza trozaturik gero Pariserat eraman zuten aitaik jakin gaberik

Parisen hostaliersak bazuen salutatuta bazuen salutatuta berriak ere galduta borthax ala amodioz jina zara anderea errazu

Ez ez ene bihotza arras borthax jina duzu hirur kapitainez galeriatik harturik jina nuzu.

Kapitainek hori entzunik jiten dire andereagana Anderea afal zite ezterik eta trunkilik hirur kapitain izanen tuzu gaur zure serbitzari

Andereak hori entzunik hila zuzen erori kapitainek joan ziren beren zaldiak harturik nigar egiten zutelarik andereari dolu eginik.

Handik hirur egun buruan andereak aitari Ohio: ai aita ni oraien hienagoz birjinitatearen naiz begiratu hilaren egon nuzu.

A — BRODATZEN ARI NINTZEN	5,10
URZO APHAL BAT	4,05
LOA LOA	4,45
GOIZEKO EURI ARTEAN	4,38

B — URA IXURIRIK	4,58
OREINA BILA	4,00
ARROSA XURIAREN AZPIAN	10,01